

Jaun-andreok,

EGUN ON!

Gaur aurkeztuko dugun liburua *Sakanako euskara, Burundako hizkera* da. Argitalpen hau Euskarabidearen eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmenaren fruitua da.

Liburu hau, Mendaur bildumako zortzigarren zenbakia dugu. Euskarabideak eta Euskaltzaindiak bultzatutako Mendaur bildumaren helburua da Nafarroako Foru Komunitateko euskararekin lotutako lanak argitaratzea.

Sakanako euskara, Burundako hizkera liburuan Burundako hizkeraren ezaugarriak bildu dira. Liburuaren hasieran, eskualdea bera hartu da hizpide. Altsasu, Bakaiku, Iturmendi, Olatzagutia, Urdiain eta Ziordia dira eskualdea osatzen duten herriak. Ondoren, bertako hizkeraren ezaugarriak azaltzen dira, azterketa fonologiko, morfologiko eta sintaktikoa eginez; eta azkenik, azterketa dialektologikoa egiten da.

1000 ale argitaratu dira eta 12 euroko prezioan jarri dira salgai.

Mendaur bilduman argitaratu diren beste liburu batzuk hauexek dira: *Jose Maria Satrustegi: ereile eta lekuko*, Andres Iñigorena; *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*, Pello Salaburu eta Maite Lakarrena; *Luzaideko Euskararen Hiztegia*, Peio Kamino eta Patxi Salaberri Zaratiegirena; *Erroibarko eta Esteribarko Hiztegia*, Orreaga Ibarra Murillorena; *Erronkari eta Ansoko toponimiaz*, Juan Karlos Lopez-Mugartzarena; eta *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*, Edu Zelaietarena.

Horrez gain, aurreikusita dago urte honetan Perpetua Saraguetak idatzitako eskutitzen azterlan bat argitaratzea, halaxe jasota baitago Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren artean 2010erako sinatutako hitzarmenean.

Iruñean, 2010eko ekainaren 2an
Xabier Azanza